

Piloturik gabeko abioiak jarri nahi dituzte gure zeruan

AMAZON BANATZAILE ERRALDOIAK piloturik gabeko abioiak, droneak alegia, erabili nahi ditu hainbat material banatzeko.

Droneak ezagun egin dira gerra makina gisa, AEBek behin baino gehiagotan erabili baitituzte arerioak suntsitzeko. Hala ere, azken aldian droneen erabilpen ez-militarraren bidea gero eta zabalagoa da. Udaren amaieran AEBetan gertatu suteak ikuskatzeko droneak erabili ziren, baina baditugu

hurbilagoko beste adibide batzuk. Frantzian, adibidez, 2012an onartu zuten droneek hegana egitea baimentzen duen legea, eta harrezkeroztik kartografia lanetarako, nekazaritzarako, artelanak zaintzeko... erabiltzen ari dira.

Antza, Amazonen aurretik enpresa askok agertu du pilo-

turik gabeko abioienganako interesa, uste baitute banaketa-kostuen murrizketa handia ekar dezaketela kasu askotan. Baina oraingoz arazoak abantailak baino handiagoak dira: oso autonomia txikia dute, eta istripuen edo lapurreten aurrean nola jokatu ez dago garbi.

Badirudi AEBetan 2015ean onartuko dela droneek hegana egitea baimenduko duen legea, eta bitartean Frantzia bihurtuko da saiakuntza eremu. Baietz hamarkada hau amaitu aurretik lehen postari droneak geure artean izan! ■



ISON kometak iraun al du?



AZAROAREN AMAIERAN ISON kometa inoiz ez beza-la hurbildu zen eguzkira. Lehen berrien arabera erabat desintegratu zen, baina azken aldian egindako behaketen ostean ez dago hain garbi hala gertatu zenik.

Izotzez eta harkaitzez osatutako kometa, eguzkira hurbildu ahala, 2.700°C-ko ten-

peraturari aurre egin behar izan zion, eta hainbat orduz segundoko hiru milioi tona material galduz joan zen. Hala ere, ez dago garbi iraun egingo duen edo beroak desegingo ote duen.

Hozten doan neurrian irauteko aukera gehiago izango du, baina orain hilabeteko dirdira ez du izango, hori ziur. ■



Koralen erresistentzia harrigarria

Azken hamarkadetan koral arre-zife ugarik jasandako kalteak izan dira albiste. Berotegi efektuaren eraginez itsasoak azidotu eta koral asko hil dira; baina aurkakoa gero eta sarriago ari dira behatzen, hau da, gero eta gehiago dira aldaketa genetikoei esker itsasoaren azidotasanari aurre egiten dioten koralak.

ttiki.com/58082

(Frantsesez)

Hardware librea

Zenbaiten ustez, denok noizbait entzun dugun "software libre" terminoak frikiek erabiltzen dituzten sistema eragile eta bestelako programa batzuk besterik ez ditu izendatzen. Dakitenek badakite askoz gehiago dela, baina, entzun behintzat, guztiok entzun dugu zerbait horri buruz. Hardware librea, aldiz, ezezagunagoa da, baina gero eta gehiago zabaltzen ari da eta etorkizunean zeresan handia emango du.

ttiki.com/58083

(Euskaraz)

Argia eta materia nahasirik

AEBetako MIT Teknologi Institutuko ikerlari talde batek materia eta argia nahastea lortu du. Horrela, material berriak sortzeko bidea zabaltzen da. Lehen erabilera informazio transmisioaren sistemetan izan daiteke.

ttiki.com/58084

(Gaztelaniaz)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16